

ERABAKIA, UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA, 2025eko ABENDUAREN 3ko EZOHIKO BILKURAN HARTUTAKOA, 2025eko ABENDUAREN 11rako ETENALDI AKADEMIKOAREN DEIALDIA ONARTZEN DUENA.

ACUERDO DE LA COMISIÓN PERMANENTE DEL CONSEJO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU, EN SU SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 3 DE DICIEMBRE DE 2025, POR EL QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DE PARO ACADÉMICO EL DÍA 11 DE DICIEMBRE DE 2025.

UPV/EHUko Ikasleen Araudiaren 2.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, UPV/EHUko ikasleek eskubidea dute beren eskubideak defendatzeko, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.7 del Reglamento del Estudiantado de la UPV/EHU, las y los estudiantes de la UPV/EHU tienen derecho a la defensa de sus derechos y al ejercicio de sus reivindicaciones y protestas.

Ikasleriak eskubide horretaz 2.7 artikuluan jasotako bermeekin baliatu ahal izateko, Ikasleen Araudian ezarritako prozedurari jarraituz egin beharko da deialdia.

Para que el estudiantado pueda acogerse a dicho derecho con las garantías recogidas en el artículo 2.7, se deberá de convocar paro académico siguiendo el procedimiento establecido en el Reglamento del Estudiantado.

27.1 artikulua etenaldi akademikorako deialdiaren erabakia hartzeko Ikasle Kontseiluko kideen bi herenek aldeko botoa eman behar duela ezartzen du.

El artículo 27.1 establece el requisito para la adopción del acuerdo de convocatoria de paro académico de contar con el voto favorable de dos tercios de las y los miembros del Consejo de Estudiantes.

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Barne Funtzionamenduaren Araubideko Arautegiaren 14.7 artikulua arabera, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde

Conforme al artículo 14.7 del Reglamento de Régimen de Funcionamiento Interno del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, el órgano competente para la

Iraunkorra da maila orokorreko etenaldi akademikorako deialdia egiteko organo eskuduna. Izan ere, "Batzorde Iraunkorrak eskuordetuta ditu eginkizun guztiak, Lehendakaria aukeratzea eta bertako barne funtzionamenduaren araubidea onartzea izan ezik".

convocatoria de paro académico de ámbito general es la Comisión Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, que ostenta, por delegación del Pleno, "todas las funciones del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, salvo la elección del Presidente o Presidenta y la aprobación de su régimen de funcionamiento interno".

Ikasleen Araudiaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.

Según el artículo 28 del Reglamento del Estudiantado, se podrá convocar paro académico siempre y cuando se realice en defensa de los derechos y en el ejercicio de sus reivindicaciones y protestas académicas.

Etenaldia ezarritako gehiengo kualifikatuz onartu ondoren, etenaldiaren deialdia idatziz jakinarazi beharko zaio organo eskudunari. Organo horrek, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango du, eskaera Erregistro Orokorrean sartzen denetik zenbatzen hasita, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin biltzeko, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Una vez aprobado el paro por la mayoría cualificada estipulada, se establece que la convocatoria de paro deberá ser comunicada por escrito al órgano correspondiente, quien, en un máximo de 3 días hábiles desde la entrada de la solicitud en el Registro General, convocará una reunión con el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU para verificar el cumplimiento de los requisitos.

Aurkeztutako eskaeraren testu osoa eranskin gisa erantsi da.

El texto íntegro de la solicitud presentada se adjunta como Anexo.

2025eko azaroaren 13ko bilkuran, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak 2025eko abenduaren 11rako etenaldi

En su sesión del 13 de noviembre de 2025, la Comisión Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU aprobó la convocatoria de

akademiko partzialerako deialdia onartu zuen, 11:00etan hasiko zena.

un paro académico parcial para el día 11 de diciembre de 2025, con efectos a partir de las 11:00 horas.

Erabaki honen bidez deialdi horren denbora-eremua zabaldu egiten da, etenaldi akademikoak 2025eko abenduaren 11ko egun osoan ondorioak izan ditzan.

Mediante el presente Acuerdo se amplía el ámbito temporal de dicha convocatoria para que el paro académico tenga efectos durante toda la jornada del día 11 de diciembre de 2025.

Horregatik, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, gehiengo kualifikatuaz, honako hau

Por todo ello, la Comisión Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, por mayoría cualificada,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENENGOA.– Euskal Herriko Unibertsitate osoan 2025eko abenduaren 11an etenaldi akademiko egiteko deialdia onartzea, 00.00etatik 23.59ak arte indarrean egongo dena.

PRIMERO.– Aprobar la Convocatoria de Paro Académico en toda la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el día 11 de diciembre de 2025, con vigor desde las 00.00 hasta las 23.59 horas.

BIGARRENA.– Xedatutakoa Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordeari helaraztea, eta Ikasleen Araudiaren 28.4 artikuluan ezarritako bilera eskatzea, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

SEGUNDO.– Trasladar lo dispuesto al Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social y solicitarle la reunión estipulada en el artículo 28.4 del Reglamento del Estudiantado para la verificación del cumplimiento de los requisitos.

HIRUGARRENA.– Erabaki hau UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Gardentasun Atarian argitaratzea.

TERCERO. – Publicar el presente acuerdo en el Portal de Transparencia del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

Leioan, 2025eko abenduaren 3an.

En Leioa, 3 de diciembre de 2025.

Iñigo Ugedo Vicario

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko Lehendakaria.
Presidente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

ERANSKINA

Agerikoa da azken urte luzeetan, euskalgintzatik behin eta berriz mahaigaineratu den bezala, euskara ataka larrian gelditzen ari dela. 60ko hamarkadatik aurrera eman zen susperraldi prozesuaren agorpenean ez ezik, atzeraldian sartzen hasita gaude jadanik. Horren erakusle da, UEMAK argitaratutako ikerketa, zeinak 2036rako aurreikuspenak jasotzen dituen eta arnagunerik existituko ez dela aurreratzen duen. Testuinguru honetan ulertu behar dugu azken hilabeteetan, forma judizial, mediatiko zein soziopolitiko hartzen duen euskararen aurkako oldarraldia.

Horren aurrean, ezinbestekoa da euskalgintzatik oldarralditik indarraldira pasatzea eta euskararen biziberritze bat suposatuko duen politika publikoak martxan jartzea. Horretarako, joan zen irailaren 26an plazaratu zuen Euskalgintzaren Kontseiluak Batuz Aldatu izeneko txostena. Itun soziopolitiko berrirako eskaintza hain zuzen. Orain, txosten horretan jasotzen diren bi helburuak erdiesteko - euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eta euskara eroso erabiltzeko guneen sorrera, garapena eta elkarlotzea- ezinbestekoa da euskararen aldeko olatu berri bat aktibatzea.

Ikasleok ezin gara isilik gelditu. Hizkuntza baten etorkizuna hezkuntzatik sortu eta mantentzen da, eta guri dagokigu eremu

ANEXO

Es evidente que, como desde hace ya muchos años se viene señalando desde el ámbito de la euskalgintza (el movimiento a favor del euskera), el euskera se encuentra en una situación crítica. No solo estamos asistiendo al agotamiento del proceso de revitalización iniciado en los años 60, sino que, de hecho, ya hemos entrado en una fase de retroceso. Prueba de ello es la investigación publicada por UEMA, que recoge proyecciones para 2036 y anticipa que para entonces no existirán ya zonas con uso predominante del euskera. En este contexto debe entenderse la ofensiva contra el euskera que en los últimos meses ha adoptado formas judiciales, mediáticas y sociopolíticas.

Ante ello, es imprescindible pasar, desde la euskalgintza, de la ofensiva a la consolidación, y poner en marcha políticas públicas que supongan una nueva revitalización del euskera. Con ese objetivo, el pasado 26 de septiembre el Consejo de la Euskalgintza presentó el informe Batuz Aldatu, una propuesta para un nuevo pacto sociopolítico. Ahora, para alcanzar los dos objetivos recogidos en dicho informe -la universalización del conocimiento del euskera y la creación, desarrollo y conexión de espacios donde su uso sea cómodo-, resulta esencial activar una nueva ola de apoyo al euskera.

Las y los estudiantes no podemos quedarnos callados. El futuro de una lengua se construye y se mantiene desde

honetan euskara eskubide gisa aldarrikatzea. Aurreko belaunaldiek XX. hamarkada hasieran edo mende horretako 60. hamarkadan egin zuten bezala, ardura gure gain hartzea dagokigu. Ikasle mugimendua euskararen oldarraldiaren aurkako borrokan lehen lerroan egongo da.

Gure hizkuntza politikan, gure hezkuntzan, eta gure herrian erabakitzerik ez badugu, ez dago euskararen biziraupenik. Euskal hizkuntza bera gure askatasunerako elementua da. Beraz, euskararen ofizialtasuna eta aitortza nahi ditugu. Eta euskarak, Espainia eta Frantziaren markoetatik at, euskal hezkuntza euskaldun propioa behar du. Euskaraz ikastea ez da pribilegio bat, oinarrizko eskubidea baizik. Euskarak eta gure herriak estatus propio bat behar dute.

Horregatik, ikasleen elkarteek grebarako deia egin dute abenduaren 11rako, hegoaldeko lau hiriburuetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Gure hezkuntza euskalduna da, euskalduna izan behar da eta izango da!

la educación, y nos corresponde a nosotras/os reivindicar el euskera como un derecho en este ámbito. Al igual que hicieron generaciones anteriores, tanto a comienzos del siglo XX como en la década de los 60 de ese mismo siglo, nos toca asumir la responsabilidad. El movimiento estudiantil estará en primera línea en la lucha contra la ofensiva contra el euskera.

Si no tenemos capacidad de decisión sobre nuestras políticas lingüísticas, nuestra educación y nuestro propio país, no habrá supervivencia posible para el euskera. La lengua vasca es, en sí misma, un elemento de nuestra libertad. Por ello, exigimos el reconocimiento y la oficialidad del euskera. Y el euskera, al margen de los marcos de España y Francia, necesita una educación vasca propia y plenamente euskaldún. Aprender en euskera no es un privilegio, sino un derecho fundamental. El euskera y nuestro pueblo necesitan un estatus propio.

Por ello, desde organizaciones estudiantiles se hace un llamamiento de huelga el 11 de diciembre, para participar en las movilizaciones convocadas en las cuatro capitales del sur.

¡Nuestra educación es euskaldun, debe serlo y lo será!